

OLERKI MUSA

Zatoz neregana,
Olerki Musa,
Zatoz, ta laztandu nazazu
Ezkongai gisa.
Zurekin batera,
Olerki Musa,
Zurekin batera, bai,
Egiten ditudala
Lanak
Arro ta lasai.

Eztut bildurrik
-Biotz gaxoen seme bildurra-
Zurekin bat
Lan dagidan
Guztiten.

Olerki Musa
Ta etorria izan
-Noiztikan?-
-Ez jakin-
Olerkariakin
Ezkontzen diran
Eder ezkongai.

Etorriaren besotik
Laztan bezela eldurik,
Ta Olerki Musaren
Muiñ goxoaren
-Zeruko ezti xoremen-
Dardarpean,
Bai pozik, ta irripar
Biotza sugar,
Sentitzen naizela
Nere ezkongaiaren
Senar.

Olerki zelaiak
Erregin badute,
Ezkongai ta gazte,
Baratz ortara jo degunok
dakigu
Erregiñ orren
Bizi eredu.

Ikusgaitza da,
Ikusgaitza,
Ta lo dagianean
Badirudi
Aitzkorriko arkaitza.

Ez ordun asperrik
Deadarrik egin.

Igetargiak parre egingo dizu,
Burla ta iruzur
Inguruetako
Iendi ta gallur.

La degianean

~~-arren-~~

Utzi pakean,
Norbaitekin
Izango baita,
Ordun ere,
Amets goxotan.

Olerkariok dakigu,
Biotzean sentitzen baldegu,
Olerki Musaren
Bizi eredu.

Bere billa joaten geranean,
Sarritan,
Bere gorputz poxpoliñ
Ezkutatzen du,
Ta ezin
Dezakegu
Gorputz arimen begiakin
Berarekin
Alkartu.

Ta nork ezer esango?
Olerkariok dakigu
Olerki Musaren
Bizi eredu.

Alperrik ordun
Zeruetako izar gaxoei
Argia eskatu.
Lirñir ta kettu
~~-Zorion gaigama-~~
dzetz esango disate
Parre ta algaraz.

Itxasoaren zabal ederrak
Irri egingo dizu,
Ta bere aunditasunarekin
Burla burlaka
Aspertu.

Lora goiztarrak
-Anai dituzte
Zeru izarrak-
Ez dizute emango
Ederrik,
Ez perfume.

Ta txori guztiak,
Beste alditan
Txio-txioka jolastiak,
Mututu egingo
Zaizkitzu...

Olerkariok dakigu
Olerki Musaren
Bizi eredu.
Lo dagianean,
Edo gurekin
Oztopo egin
Ez nai dunean,
Alperrik dela
Bere billa
Izerditan
Lan egitea,
Buru austean.

Oi Olerki Musaren
Kapritxo ta naikerien
Aize xoramen!

Ta gutxien ustean,
Olerkaria lotan,
Arazo lanetan,
Egaaka datorkizula
Ta goiztar bailitza
Lore mardule,
Mufi dagizula
Ezpaia berotan.

Zeruko argitan
Koroaturik datorkizu,
Ta mufi dagizu,
-Olerki Musaren musu-
Ta bereala
Alde egiten dizu.

Biotz garrari
Eutsi ezirik
Zutitzen gera
Olerkari gaixoak,
Ta Olerki Musaren berri
Irauli nai izaten degu
-Sarritan alperrik-
Musu aren
Oroigarri.

Kapritxoak dituztela, gero,
Kapritxoak,
Olerki Musaren
Mufi beroak.

Aldegin dagianean,
Etorriaren beso laztanetan,
Otz gertatzen gerra
Ta irauli degun olerkiak
Mufi aren antzik ez dula
Esaten degu
Triste ta penaz...

...Beraz, beraz,
Nork lerrotan jarri
Olerki Musaren
laztanen berri?

Sabin Berasaluze

Arantzazu

1957

